Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko urtarrilaren 31, astelehena — 19 — Lunes, a 31 de enero de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DEBAKO UDALA

*Deba ibaiko estuarioaren eremuaren garapenerako hitzarmenaren proposamena jendaurrean jartzea.*

Alkateak 2021eko azaroaren 30ean onarturiko Ebazpenaren bitartez Debako eta Mutrikuko Udalen artean Deba ibaiko estuarioaren garapenerako Hirigintza Hitzarmenaren proposamena jendaurrean jartzea erabaki da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, agiriaren testu osoa argitaratu da, hogei egun baliodunen epearen buruan, agiria Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, interesatuek aztertu eta egoki iriztezn dituzten alegazioak egin ditzaten.

Deba, 2022ko urtarrilaren 11.—Gilen Garcia Boyra, alkatea.
(168)

*Hitzarmena Debako eta Mutrikuko Udalen artean Deba ibaiko estuarioaren garapenerako.*

Mutrikuko Udaletxean,

2021eko ............................aren .......an.

BILTZEN DIRA

Alde batetik, Mutrikuko Udalaren Alkatea den Joseba Palenzuela Arrieta jauna, Mutrikuko Udalbatzak hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua.

Beste aldetik, Debako Udalaren Alkatea de Gilen García Boyra jauna, Debako Udalbatzak hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua.

Hitzarmen honetan parte hartzen dutenen eta euren sinaduren fede ematen duen Mutrikuko Udalaren Idazkaria den Ioseba Iribar Garrastazu jaunaren aurrean.

ADIERAZTEN DUTE

*Lehena.* Indarrean dauden Debako Arau Ordezkoak 2007ko abenduaren 17ko 244 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, eta indarrean dauden Mutrikuko Arau Ordezkoak 2007ko uztailaren 23ko 144 zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

*Bigarrena.* Aipatutako Arau Ordezko bi horietan (bai Debakoetan, bai Mutrikukoetan) Udalerri bietan kokatzen den Deba ibaiaren itsasora barneratze lurraldea edo estuarioaren eremua modu berdintsuan finkatzen da, hau da, Sistema Orokorra bezala elkarren arteko Plan Berezi bakar baten bitartez antolatu beharrekoa. Hauek dira, besteak beste, plan horretarako ezartzen diren irizpidea, helburuak, zamak eta bestelako ezaugarriak:

Plangintza orokor eta integratzailea egitea.

«Mutrikuko udalerrian duen azalera: 74.685 m².

Debako udalerrian duen azalera: 84.864 m².

I. *Antolamenduko irizpideak eta helburuak.*

— Deba eta Mutrikuko Hirigintza plangintzak bateratzea Debaren estuarioari dagokionez.

## AYUNTAMIENTO DE DEBA

*Exposición pública de la propuesta de convenio para el desarrollo del estuario del río Deba.*

Mediante Resolución dictada por esta Alcaldía con fecha 11 de enero de 2022, se ha dispuesto someter al trámite de información pública la propuesta de Convenio Urbanístico entre los Ayuntamientos de Deba y Mutriku para el desarrollo del estuario del río Deba.

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se publica el texto íntegro del documento, a fin de que durante el plazo de veinte días hábiles, a contar de la inserción en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, los interesados puedan examinarlo y deducir las alegaciones que consideren oportunas.

Deba, a 11 de enero de 2022.—El alcalde, Gilen Garcia Boyra.
(168)

*Convenio entre los Ayuntamientos de Deba y Mutriku para el desarrollo del estuario del río Deba.*

En la Casa Consistorial de Mutriku,

a ...... de ................................ de 2021.

SE REÚNEN

De una parte, el Alcalde del Ayuntamiento de Mutriku, D. Joseba Palenzuela Arrieta, facultado por la Corporación Municipal de Mutriku para suscribir el presente Convenio.

De otra parte, el Alcalde del Ayuntamiento de Deba, D. Gilen García Boyra, facultado por la Corporación Municipal de Deba para suscribir el presente Convenio.

Ante el Secretario del Ayuntamiento de Mutriku, D. Ioseba Iribar Garrastazu, que da fe de los participantes en el presente Convenio y de sus firmas.

MANIFIESTAN

*Primero.* Las vigentes Normas Subsidiarias de Deba se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 244 de 17 de diciembre de 2007 y las vigentes Normas Subsidiarias de Mutriku en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 144 de 23 de julio de 2007.

*Segundo.* En las dos Normas Subsidiarias citadas, tanto en las de Deba como en las de Mutriku, se consolida de forma similar el territorio de incorporación al mar del río Deba o ámbito del estuario que se sitúa en ambos Municipios, es decir, a ordenar como Sistema General mediante un único Plan Especial conjunto. Los criterios, objetivos, cargas y otras características que se establecen para dicho plan son, entre otros, los siguientes:

Planificación general e integradora.

«Superficie en el término municipal de Mutriku: 74.685 m².

Superficie en el término municipal de Deba: 84.864 m².

I. *Criterios y objetivos de ordenación.*

— Unificar los planeamientos urbanísticos de Deba y Mutriku en relación al estuario de Deba.

— Bi udalerri hauen arteko komunikazioak hobetzea, horien eta eskualdearen artekoak bezalaxe.

— Estuarioa eta hondartzak babestea eta ingurumen baldintzak hobetzea.

— Estuarioak aisialdi eta turismo jardueretarako izan litzakeen baliabideak aprobetxatzea.

— Estuarioaren esparruan lur politika arrazionalizatzea. Dikeak, hormak eta harri-lubetak konpontzeko, hobetzeko eta zabaltzeko obrak antolatzea.

— Reiner dartsena udalaz gaindiko ekipamenduez hornitzea.

— Plangintza orokor eta integratzailea egitea.

*II. Funtsezko xedapen amankomunak (Udalerri bientzat).*

1.Lurzoruaren sailkapena: Lurzoru hiritarra.

2. Plangintza garatzeko eta gauzatzeko erregimena:

Deba eta Mutrikuko udalerrietan eragingo duen Plan Berezia egin eta tramitatu beharko da. Plan Bereziko jarduketek itsas eta lehorreko jabari publikoan izan lezaketen eragina aintzat hartuta, aurrez jarduketa horietarako titulua eskuratu beharko da, Kosten 22/1988 Legean ezarritakoari jarraituz.

3. Eraikuntza probetxamenduari buruzko baldintzak.

Gehieneko probetxamendua: 0,50 m² (t)/m² (s).

Erabileraren trinkotasuna: Plan Bereziak zehaztuko du.

Gehieneko altuera: 10 metro.

Profila: BS + II.

4. Lagapenak eta zorpenak.

Jabari publikoko eremu honetako erabilera Plan Berezian arautuko da.

5. Berariazko hiritartze zamak.

6. Eraikuntza, jabari eta erabilera baldintza partikularrak.

Plan Berezian zehaztuko dira. Jabari publikokoa izango da.»

*Hirugarrena.* Debako eta Mutrikuko udalek hala enkargatuta, 2014ko abenduan, udal biek partaidetza duten Deba Beheko garapen sozioekomikorako sozietateak (Debegesa) Deba Ibaiaren Estuarioaren Plan Bereziaren Aurrerapen proposamena egin eta aurkeztu zuen gero izapidean edo tramitean jarri ez zena.

*Laugarrena.* Bestetik, 2018 urtean, Deba Ibaiaren Estuarioaren Plan Berezi horrekin aurrera egiteko asmotan, eremuan eskumenak dituzten erakunde publiko desberdinen arteko elkarrizketak burutu ziren (Itsasertz Zerbitzu Probintziala, Jaurlaritzaren Portu Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Deba eta Mutrikuko Udalak eta Debegesaren artean hain zuzen) bakoitzak plan bereziari eta honen eragiketari beharrezkoak ikusten zituen ekimenak ere zehaztu zirelarik (euren arteko hitzarmen proposamen bat idatzi bazen ere, ez zen gauzatu).

*Bosgarrena.* Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintza arautzen duen 2/2006 ekainaren 30eko legeak (2006ko uztailaren 20ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren* 138 zenbakian argitaratua) bere 92.1 atalean eta era berean Eusko Jaurlaritzaren 105/2008 ekainaren 3ko lege horren garapenerako Dekretuak (ekainaren 28ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren* 118 zenbakian argitaratua) bere 14. atalean, Udalerri bien arteko lur eremu bat arautu behar duen Plan Berezi elkartuaren posibilitatea eta ahalmena arautzen dute. Hain zuzen, Udal bien arteko adostasunez, euretariko batek formulatu eta izapidetu dezake plan berezi hori eta adostasun horretan datza hitzarmen honen xedea.

Hori horrela izanda, eta aipatutako guztia kontutan hartuta, alde biek elkarri hitzarmen hau eman eta sinatzeko ahalmena onartzen diote, fede onez beteko dutena, eta

— Mejorar las comunicaciones entre estos dos municipios, así como entre éstos y la comarca.

— Proteger el estuario y las playas y mejorar las condiciones ambientales.

— Aprovechamiento de los recursos que el estuario pudiera tener para actividades de ocio y turismo.

— Racionalizar la política de suelo en el ámbito del estuario. Organización de las obras de reparación, mejora y ampliación de diques, muros y escolleras.

— El equipamiento supramunicipal de la dársena Reiner.

— Planificación global e integradora.

*II. Disposiciones esenciales comunes a ambos municipios.*

1. Clasificación del suelo: suelo urbano.

2. Régimen de desarrollo y ejecución del planeamiento:

Se deberá elaborar y tramitar un Plan Especial que afecte a los municipios de Deba y Mutriku. Teniendo en cuenta la posible incidencia de las actuaciones del Plan Especial en el dominio público marítimo-terrestre, se deberá obtener previamente el título para dichas actuaciones, de acuerdo con lo establecido en la Ley 22/1988, de Costas.

3. Condiciones relativas al aprovechamiento edificatorio.

Aprovechamiento máximo de 0,50 m² (t)/m² (s).

Densidad de uso: vendrá determinada por el Plan Especial.

Altura máxima: 10 metros.

Perfil: BS + II.

4. Cesiones y servidumbres.

El uso de esta zona de dominio público se regulará en el Plan Especial.

5. Cargas de urbanización específicas.

6. Condiciones particulares de edificación, dominio y uso.

Se determinarán en el Plan Especial. Será de dominio público.»

*Tercero.* Por encargo de los Ayuntamientos de Deba y Mutriku, en diciembre de 2014, la sociedad para el desarrolo socioeconomico de comarca Bajo Deba (Debegesa), en la que ambos ayuntamientos participan, elaboró y presentó propuesta de Avance del Plan Especial del Estuario del Río Deba que posteriormente no se puso en trámite.

*Cuarto.* Por otra parte, en el año 2018, con el fin de avanzar con este Plan Especial del Estuario del Río Deba, se llevaron a cabo conversaciones entre las diferentes instituciones públicas con. competencias en la zona (Servicio Provincial de Costas, Dirección de Puertos del Gobierno, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamientos de Deba y Mutriku y Debegesa), concretándose las iniciativas que cada una de ellas consideraba necesarias al Plan Especial y a su operación (aunque se redactó una propuesta de convenio entre ellas, no se llevó a cabo).

*Quinto.* El artículo 92.1 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, reguladora del Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada en el *Boletín Oficial del País Vasco* n.º 138, de 20 de julio de 2006, y el artículo 14 del Decreto del Gobierno Vasco 105/2008, de 3 de junio, de desarrollo de la citada Ley, publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* n.º 118, de 28 de junio, regulan la posibilidad y capacidad del Plan Especial asociado que debe regular un ámbito territorial entre ambos municipios. En efecto, el objeto del presente convenio consiste en la formulación y tramitación de dicho plan especial por uno de los Ayuntamientos de común acuerdo.

Siendo esto así, y teniendo en cuenta cuanto antecede, ambas partes se reconocen mutuamente la facultad de otorgar y suscribir el presente Convenio, que ejercerán de buena fe, y

EK\CV GAO-I-2022-00168

HONAKO ESTIPULAZIO HAUEK ADOSTEN DITUZTE

*Lehena.* Hitzarmen honen xedea da Debako eta Mutrikuko Udal Arau Ordezkoen araberako Deba ibaiaren estuarioko Plan Bereziaren idazketa, izapidea eta, tramiteak modu onenean eta eraginkorrenean garatze eta, hala badagokio, ahal den lasterren behin betiko onarpena ematea.

*Bigarrena.* Plan Berezi horren egite, osaketa eta izapiderako aholkularitza Debegesa Elkarteari enkargatuko dio Mutrikuko Udalak Udal bien izenean Debegesak aurkezturiko proposamena eta aurrekontua onartu eta esleituaz elkarte hori tresna propioa den heinean. Aurrekontu hori 29.400,00 eurokoa da (BEZ gabe), eta Udal bien artean bakoitzak eremuan duen lur zabaleraren proporzioetan bananduko da eta ordainduko dute (% 47 Mutrikuk eta % 53 Debak). Dagozkion fakturak Debegesak Udal bakoitzari proportzio horretan bananduta aurkeztuko dizkio ordaindu ahal izateko. (Debegesaren proposamenaren kopia atxikitzen zaio hitzarmen honi –I eranskina– hitzarmen beraren partetzat hartzen dena).

Modu berean, Plan Bereziak Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa behar duenez (21/2013 Estatu Legearen araberakoa), Mutrikuko Udalak enkargatuko du eta ordainketa aurreko lerroan adierazitako proportzioan eta moduan fakturatuko da. Honen aurrekontuaren estimazioa 10.000,00 €koa da (BEZ gabe).

Modu berean, Plan Bereziak Zaraten Arriskuen Azterketa behar duenez (21/2013 Estatu Legearen araberakoa), Mutrikuko Udalak enkargatuko du eta ordainketa aurreko lerroan adierazitako proportzioan eta moduan fakturatuko da. Honen aurrekontuaren estimazioa 5.000,00 €koa da (BEZ gabe).

Modu berean, Plan Bereziak Uholde Arriskuen Azterketa behar duenez (21/2013 Estatu Legearen araberakoa), Mutrikuko Udalak enkargatuko du eta ordainketa aurreko lerroan adierazitako proportzioan eta moduan fakturatuko da. Honen aurrekontuaren estimazioa 10.000,00 €koa da (BEZ gabe).

Plan Bereziaren idazketak sortzen dituen agiriak elebitan argitaratuko direnez, agiriok elebitan ipintzeak dakarren kostua goian adierazitako proportzioan eta moduan ordainduko dute Debako eta Mutrikuko Udalek. Azken kostua behin betiko agiriak eginda daudenean ezagutuko da.

*Hirugarrena.* Egingo eta izapidean jarriko den Plan Berezi horrek 2014ko abenduan aurkezturiko Aurrerapenaren edukia eta ildoa izango ditu irizpide nolabaiteko eguneratze eta beharrezkotzat hartzen diren ñabardurak gehituaz eta moldatuaz.

*Laugarrena.* Behin Plan Berezi horren Aurrerapen asmo berria proposamenaren epean eta baldintzetan eginda dagoenean, Debako Udalaren eta Mutrikuko Udalaren ordezkariek elkarrekin aztertu eta biek aintzat hartu ondoren, Mutrikuko Udalak jarriko du tramitazioan. Horrekin batera ingurumen estrategia agiria hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatezko Zuzendaritzara bidaliko da, ingurumen ebaluaketa estrategikoaren prozeduraren hasiera eskatuaz. Hurrengoko tramite guztietan ere Udal biek berdin jokatuko dute. Udal biek elkarrekin tramite bakoitzeko agiriak aztertu eta aintzat emanda eta Mutrikuko Udalak tramitatuta. Hala ere, iragarki (txostenak, onarpenak...) guztiak Udal bien izenean egingo dira, baita behin betiko onarpenari eta ordenantzei dagozkienak ere.

*Bosgarrena.* Epeari begira, hitzarmen honek Plan Berezia bera (udal biek) behin betikoz onartuta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den bitartean iraungo du. Edozein kasutan, ez du hitzarmena sinatzen denetik lau urtetik haratago indarrean jarraituko Udal biek luzapenik beren-beregi onartzen ez baldin badute behintzat.

*Seigarrena.* Hitzarmen honen egikaritzan modu zehatz, zurrun eta arinean aritzeko, alde biek Jarraipen Batzorde bat osatuko dute, Udal bakoitzetik ordezkari bi izango duena. Bileretarako deialdiak Alkateek egin ahal izango dituzte.

ACUERDAN LAS SIGUIENTES ESTIPULACIONES

*Primero.* El presente Convenio tiene por objeto el desarrollo óptimo y más eficaz de la redacción, tramitación y, en su caso, aprobación definitiva del Plan Especial del estuario del río Deba, conforme a las Normas Subsidiarias Municipales de Deba y Mutriku.

*Segundo.* El Ayuntamiento de Mutriku encargará a la sociedad Debegesa, como medio propio, el asesoramiento para la elaboración, elaboración y tramitación del citado Plan Especial, mediante la aprobación y adjudicación del presupuesto y propuesta presentada por Debegesa. Este presupuesto asciende a 29.400,00 euros (IVA excluido), que se repartirán y abonarán en las proporciones de terreno que cada uno de los Ayuntamientos tenga en el ámbito (47 % Mutriku y 53 % Deba). Debegesa presentará a cada Ayuntamiento las facturas correspondientes desglosadas en esa proporción para su abono. (Se adjunta copia de la propuesta de Debegesa al presente convenio –anexo I– que se considera parte del mismo).

Asimismo, dado que el Plan Especial está sometido a Evaluación Ambiental Estratégica (según la Ley estatal 21/2013), ésta será encargada por el Ayuntamiento de Mutriku y el pago se facturará en la proporción y forma indicadas en la línea anterior. Su presupuesto se estima en 10.000,00 € (sin IVA).

Asimismo, dado que el Plan Especial requiere un Estudio de Riesgos de Ruidos (según la Ley estatal 21/2013), éste será encargado por el Ayuntamiento de Mutriku y el pago se facturará en la proporción y forma indicadas en la línea anterior. Su presupuesto se estima en 5.000,00 € (sin IVA).

Asimismo, dado que el Plan Especial requiere un Estudio de Riesgos de Inundación (según la Ley estatal 21/2013), éste será encargado por el Ayuntamiento de Mutriku y el pago se facturará en la proporción y forma indicadas en la línea anterior. Su presupuesto se estima en 10.000,00 € (sin IVA).

Dado que la documentación que genere la redacción del Plan Especial será publicada en bilingüe, el coste de su traducción será abonado por los Ayuntamientos de Deba y Mutriku en la proporción y forma arriba indicadas. El coste final se conocerá cuando los documentos definitivos estén elaborados.

*Tercero.* El citado Plan Especial, que se elaborará y pondrá en trámite, incorporará el contenido y la línea del Avance presentado en diciembre de 2014 con una cierta actualización de criterios y con la incorporación y adecuación de las matizaciones que se consideren necesarias.

*Cuarto.* Una vez realizado el nuevo Proyecto de Avance del citado Plan Especial en el plazo y condiciones de la propuesta, y tras su estudio y toma en consideración por los representantes del Ayuntamiento de Deba y Mutriku, el Ayuntamiento de Mutriku lo pondrá en trámite. Junto con el documento de evaluación ambiental estratégica, se remitirá a la Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco, solicitando el inicio del procedimiento de evaluación ambiental estratégica. En todos los trámites posteriores, ambos Ayuntamientos actuarán de igual modo, analizando y considerando conjuntamente cada trámite y tramitándolo el Ayuntamiento de Mutriku. No obstante, todos los anuncios (informes, aprobaciones) se realizarán en nombre de ambos Ayuntamientos, así como los correspondientes a la aprobación definitiva y ordenanzas.

*Quinto.* El presente Convenio se mantendrá vigente, a efectos de plazo, hasta la publicación de la aprobación definitiva del mismo Plan Especial por ambos Ayuntamientos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. En todo caso, no seguirá vigente más allá de los cuatro años desde la firma del convenio, salvo que ambos Ayuntamientos acepten expresamente una prórroga.

*Sexto.* Para actuar de forma concreta, rigurosa y ágil en la ejecución del presente Convenio, ambas partes constituirán una Comisión de Seguimiento, que estará representada por dos representantes de cada Ayuntamiento. Las convocatorias podrán realizarlas los Alcaldes.

EK\CV GAO-I-2022-00168

*Zazpigarrena.* Gai honetan udal bien arteko harremanak finkatzen dituen hitzarmena izan arren, Hirigintzako antolakuntzarako egina eta adostua denez, ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintza Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen den moduan tramitatuko da, hau da, Alkate biek hasieraz onartuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta gero Udal bakoitzeko Osoko Bilkurak behin betiko onarpena emateko aukera izango du. Hitzarmen honen izaera juridikoa administraziozkoa da. Hala ere, bere eragiketan egon daitezkeen interpretazio eta desadostasunak, Jarraipen Batzordearen barnean konponbidea bilatu eta aurkitzeko konpromisoa hartzen dute alde biek. Hala ez balitz, batak zein besteak har ditzakeen erabakiak Administrazioaren Auzialdietarako Epaitegien aurrean errekurritu daitezke.

Hau da alde biek sinatzen dutena, goian aipatutako lekuan eta datan.

Debako Udaleko alkatea, Gilen García Boyra.

Mutrikuko Udaleko alkatea, Joseba Palenzuela Arrieta.

*Séptimo.* Aunque se trate de un convenio que establece las relaciones entre ambos Ayuntamientos en esta materia, y dado su carácter de acuerdo y elaborado para la ordenación urbanística, se tramitará en los términos previstos en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, es decir, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa aprobado inicialmente por ambos Alcaldes, para su aprobación definitiva por el Pleno de cada Ayuntamiento. El presente Convenio tiene naturaleza jurídica administrativa. No obstante, ambas partes se comprometen a buscar una solución en el seno de la Comisión de Seguimiento a las posibles interpretaciones y discrepancias que pudieran surgir en su operación. En caso contrario, las decisiones que puedan ser adoptadas por uno u otro podrán ser recurridas ante los Juzgados de Instancia de la Administración.

Esto es lo que firman ambas partes en el lugar y fecha arriba indicados.

Alcalde del Ayuntamiento de Deba, Gilen García Boyra.

Alcalde del Ayuntamiento de Mutriku, Joseba Palenzuela Arrieta.

EK\CV GAO-I-2022-00168